

**EUSKAL HERRIKO**  
**ESKUBIDE SOZIALEN KARTA**  
**CARTA DE LOS DERECHOS**  
**SOCIALES DE EUSKAL HERRIA**

Prozesuaren ondarea  
Patrimonio del proceso

2014ko urria  
Octubre de 2014

## **DOKUMENTUAREN EDUKIAK / CONTENIDOS DEL DOCUMENTO**

Introducción / Sarrera	3
Euskal Herriko eskubide sozialak / Derechos sociales de Euskal Herria	4
1. Lurralde eta ingurumen eskubideak/ Derechos del territorio y medioambiente	4
2. Lanari loturiko eskubide sozialak / Derechos sociales relacionados con el trabajo	13
3. Eskubide ekonomikoak / Derechos económicos	17
4. Jendartearen parte hartzea politiken diseinuan / Por la participación social en el diseño de las políticas	21
5. Etxebizitza/ Vivienda	22
6. Hezkuntza / Educación	24
7. Osasunari buruzko eskubideak / Derechos sobre la salud	26
8. Zaintza eta bizitzaren mantentzea / Cuidados y sostenibilidad de la vida	31
9. Emakumeon kontrako indarkeriarik gabeko bizitza / Una vida libre de violencias hacia las mujeres	33
10. Jatorri aniztasuna / Diversidad de origen	35
11. Aniztasun sexuala / Diversidad sexual	36
12. Aniztasun funtzionala / Diversidad funcional	38
13. Hizkuntza eskubideak / Derechos lingüísticos	39
14. Eskubide kulturalak / Derechos culturales	40
15. Militarizaziorik gabeko bizitzarako eskubidea / Derecho a una vida libre de militarización	42
16. Kartzelan askatasun gabe daudenen eskubideei buruzko ekarpena / Derechos de las personas privadas de libertad	43
17. Beste eredu bateko administrazio publikoen beharra / Necesitamos otras administraciones públicas	46
Gehitu ez diren ekarpenak / Aportaciones no-incorporadas	48
Itxi gabeko eztabaidak / Los debates pendientes	56



## INTRODUCCIÓN / SARRERA

Jarraian, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzeko prozesutik eratorritako ondare politiko zein soziala, bere osotasunean, aurkezten da, hiru ataletan banatuta.

- Lehen atalean, parte hartze prozesuan landutako eskubide sozialak agertzen dira.
- Bigarren atalean, jasotako ekarpen guztien azalpen-kuadroa eta ekarpenak onartuak ez izateko arrazoiak ageri dira.
- Azken puntuan, amaiera edo abiapuntu gisa, eztabaida ezberdinetan agertu, baina itxi gabe gelditu diren eztabaidak azaltzen dira, prozesu honen aurrekari edota ondorio gisa ulertu daitezkeenak.

Gai hauek atal honetan kokatzean, eztabaida hauen garrantzia islatzeaz gain, etorkizun hurbilean argitu beharrekoak izango direla ulertzen dugu.

Norabide eta aukera dira aldi berean eta, Karta honek jasotzen dituen eskubide sozialak Euskal Herria osatzen duten herritar guztiek egunerokoan bermatuak dituztenean, zentzua izango dutenak dira.

Muga guztien gainetik, ahalegin kolektibo honen xedea jarduteko modu kolektiboan oinarrituriko eredu sozial berri baten eraikuntza dugu eta bide horretan aurrera urrats gisa kokatzen dugu eskuartean duzuen, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta.

A continuación se presenta de manera integrada el conjunto del patrimonio social y político producto del proceso de elaboración de la Carta por los Derechos Sociales de Euskal Herria, que se compone de tres partes.

- La primera de ellas condensa, a modo de ejes-temáticos que combinan derechos y reivindicaciones, los derechos sociales trabajados en las diferentes dinámicas participativas realizadas.
- En segundo lugar, en este apartado se incluye un cuadro explicativo con todas las aportaciones, y los correspondientes motivos explicados, que no han podido ser incorporadas.
- Para terminar, a modo de cierre o de apertura, se han querido explicitar algunos debates pendientes, o cuestiones inconclusas, que al tiempo que anteceden y exceden a este proceso en concreto han aparecido en varias de las aportaciones recibidas.

Con este ejercicio, se asume aquí la importancia de profundizar en estos debates pendientes como una de las posibles y deseables derivas de esta Carta.

Derivas y horizontes que tendrán sentido cuando los derechos que este documento propone sean realmente apropiados en el cotidiano de la vida de las diversas personas que habitan y conforman los barrios y pueblos de Euskal Herria.

Ése es el deseo de este esfuerzo compartido que, más allá de sus limitaciones, representa un avance hacia la construcción de un nuevo modelo social basado en prácticas colectivas de nuevo tipo.

# EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALAK DERECHOS SOCIALES DE EUSKAL HERRIA

## 1. LURRALDE ETA INGURUMEN ESKUBIDEAK / DERECHOS DEL TERRITORIO Y MEDIOAMBIENTE

### INGURUMEN ESKUBIDEAK/ DERECHOS MEDIOAMBIENTALES

*Ingurumena babestea mantentzea eta berreskuratzea, egungo zein etorkizuneko belaunaldien mesedetan. Eskubideaz gain natura zaintzeko betebeharra daukagu, biodibersitatea alor guztietan mantentzeaz gain ekosistemaren oreka mantentzekoa. Gure ondorengoek ingurumena guk jaso dugun bezala edo ahal bada hobeto jasotzeko eskubidea dute. Ingurumena erabili, gozatu, landu eta zaindu./ Proteger, mantener y recuperar el medio ambiente en beneficio nuestro y de las generaciones futuras. A parte del derecho tenemos el deber de cuidar la naturaleza, de mantener la biodiversidad y el equilibrio en todos los medios. Las generaciones futuras tienen derecho a recibir un medio ambiente en mejores condiciones que las actuales.*

### AURRERA ERAMATEKO NEURRIAK/ MEDIDAS A ADOPTAR:

#### Lege aldetik/ Leyes:

- Ingurumena babesteko legedia sendotu, berrikusi eta bete arazi. Ingurumen Behatokia./ Reforzar, revisar y hacer cumplir las leyes que protegen la naturaleza. Observatorio del medio ambiente.
- Ontzi eredu lege aldatu. Cambiar la ley del envasado.

#### Herritarren parte hartzea/ Participación del pueblo:

- Ingurumenarekin zerikusia duten proiektu oro garatu aurretik informatuak izateko eskubidea era eraginkor eta errealean. Eragina jasoko duten komunitateek aukeratu dituzten pertsonen aldetik informazioa jasotzeko eskubidea, asanblada parte-hartzaileetan./ Derecho a la información de aquellos proyectos relacionados con el medio ambiente de manera efectiva y real, con anterioridad a su propio desarrollo. Derecho a toda la información y al asesoramiento por parte de personas elegidas por las comunidades afectadas en asambleas participativas.
- Ingurumen-inpaktuaren balioztatzeetan parte hartzeko eskubidea era eraginkor eta errealean. Erabaki markoa instalazioak ezartzera doazen eremuan./ Derecho a participar de manera efectiva y real en las evaluaciones de impacto ambiental. Marco de decisión de las instalaciones en el ámbito donde se van a implantar.
- Eskubidea gai polemiko eta eztabaidatuetan benetako erabakiak berrespen lotesle herrikoia mendera dezaten. Eskubidea kontsultak deitzera lege anakronikoak ezeztatzeko edo herri borondatearen beharretarako ez direnean./ Derecho a que ciertas decisiones (temas controvertidos, polémicos) sean sometidos a refrendo popular vinculante. Derecho a convocar consultas para revocar leyes anacrónicas o que no respondan a la voluntad popular.
- Herritarren partehartzea bermatzeko tresnak, alternatiba gisa benetako jendearen behar eta lehentasunak ezagutzeko./ Herramientas para habilitar la

participación social como alternativa, escuchándose a la gente y conociendo las necesidades y prioridades existentes.

### **Dibertsitate genetiko naturalerako eskubidea/ Derecho a la diversidad genética natural.**

- Gaur egungo eta etorkizuneko gizateriak eskubidea du naturak eskaintzen digun banku genetikoz. Bizi aniztasuna babesteko betebeharra dauka belaunaldi bakoitzak./ La humanidad del presente y del futuro tiene derecho al banco genético que nos ofrece la naturaleza. Cada generación tiene la obligación de salvaguardar esta diversidad.
- Espazio natural izendatuak bakarrik babesten dira; hortik kanpokoetan, edozer egin daiteke. Hau ekiditeko jabetza pribatua erregulatu./ Actualmente sólo se protegen los espacios naturales designados, mientras en el resto se puede hacer lo que se quiere. Para evitar esto regular la propiedad privada.
- Ingurumen osasuntsuan bizitzeko eskubidea, xahukeria, kutsadura, pribatizazioa eta espekulazioa baztertuz./ Derecho a vivir en un entorno saludable excluyendo la contaminación, la privatización, la especulación
- Naturari buruz formatuak izateko eskubidea. Txikitatik eskolan ingurumenarekin harreman zuzenak landuz, parte hartze ohiturak, elikagaiekiko harremana kontsumo eta bizi eredua. Ikerketa eta esperientzien dibulgazioa bultzatu./ Derecho a la formación sobre la naturaleza, trabajando desde la infancia en contacto directo con la misma, trabajando la participación, la relación con los alimentos, el modelo de vida y de consumo. Impulsar la investigación y la divulgación de experiencias.

### **KONTSUMO ARDURATSUA/ CONSUMO RESPONSABLE**

- Kontsumo maila hauek ezin dira jasan: Gutxiago kontsumitu, gutxiago hazi. Kontsumo arduratsua ez da ondo zabaldu: ez da kontua gehiago birziklatzea, gutxiago kontsumitzea baino./ No podemos soportar estos niveles de consumo: consumir menos, crecer menos. El mensaje de consumo responsable no se ha entendido bien, no es cuestión de reciclar más, sino de consumir menos.
- Etxeetan sortutako hondakinen banaketa selektiboa egiteko eskubide eta betebeharra eta murriztu + berrerabili + birziklatu sistema eragingarrienaren jarraipena./ Derecho y deber de la separación ordenada de la basura generada en el domicilio particular, así como seguir las indicaciones acordadas con el sistema más efectivo de R + R +R.
- Jakin behar dugu ura nola erabiltzen ari garen, zenbat ari garen kutsatzen, zer behar dugun hori garbitzeko... kontsumo arduratsua hasi etxetik bertatik: uraren erabilera, gasarena, elektrizitatearena, elikagaiena. Kontsumo arduratsua gugandik hasi behar da./ Tenemos que conocer el uso que estamos dando al agua, cuánta agua estamos contaminando, qué necesitamos para luego limpiar ésta... El consumo responsable empieza desde la propia casa: uso del agua gas, electricidad, alimentos. el consumo responsable debe empezar por uno o una misma.
- Plastiko poltsak erabili beharrean supermerkatuetan berziklatu daitezkeen poltsak izatea, behin eta berriz erabili ahal izateko, berdina egin daiteke botilekin./ Tener bolsas reciclables en los supermercados, para poder usarlas una y otra vez lo mismo con botellas retornables.
- Enpresa handiak duten kutsatzeko permisibidatea. Industria hazkundeak ezin du hazten jarraitu. Lege monopolistikoak abolitu./ Permisividad ante la

contaminación a grandes empresas. No puede seguir el crecimiento de la industria.

- Ekintza kutsakorrek ordezkatu./ Sustituir las actividades contaminantes.
- Biodiesel etxeko oliotik egiteko sistema (FAME ?)/ Biodiesel con aceite casero
- Naturaren etsai garrantzitsuenetariko bezala aipatzen dira: Nafarroako ubidea Abiadura Handiko Trena, goi tentsioko lineak, frackinga./ Como principales agresiones al medio ambiente se citan el Canal de Navarra, el Tren de Alta Velocidad, las líneas de alta tensión y el fracking.

## **LURRALDEAREN BERRANTOLAKETA SOZIALA/ REORGANIZACIÓN SOCIAL DEL TERRITORIO**

***Lurraldearen gaineko ekintza orok ekosistemekiko biodibertsitatearen zaintza, errespetua eta oreka bermatu behar du. Toda actuación sobre el territorio debe cuidar y respetar la biodiversidad y garantizar el equilibrio del mismo.***

*Lurraldearen berrantolaketa jendarte eredu orekatsu, deszentralizatu, justu, euskaldunagoa egiten eragin dezake. Lurraldearen antolaketa, egituraketa zein izaera sozialak (lantokiak, garraioa, azpiegiturak, zerbitzu sozialak, komunikabideak, hezkuntza...) hau lortzen lagun dezake edo oztopo izan daiteke. Gakoa: aplikatzen diren politiken norabidea. Egungo politikaren helburuak interes ekonomiko pribatuetara erabat lotuak daude (interes puntuak hiriguneak dira). Lurraldea behar sozialen arabera antolatu beharrean, interes ekonomiko pribatuen arabera antolatzen da, zerbitzu zein azpiegiturak hiriguneetan pilatuz. Hirigintzak hizkuntzan eta harremanetan eragina dauka, eta egungo eredu horrekin guztiz interesatuta dago./ La ordenación del territorio puede ayudar a crear una sociedad mas equilibrada, justa descentralizada y euskaldun. La organización del territorio, su estructuración, su función social (empresas, transporte, infraestructuras, servicios sociales, medios de comunicación, educación...) puede ayudar a conseguirlo o puede ser un estorbo. La cuestión está en las políticas que se aplican. Los intereses de los políticos de hoy día están en objetivos económicos privados (los puntos de interés son las capitales). En vez de organizar el territorio en función de las necesidades sociales se organiza en beneficio de intereses privados, acumulando servicios e instalaciones en las capitales. El urbanismo tiene mucho que ver en nuestras relaciones y en el idioma y el modelo actual esta totalmente interesado en ello.*

**Lurralde antolaketa eredu berri bat, sektore ekonomikoak, populazioa... berrantolatuko dituen, tokiko kontzeptua indartuko duena (elikadura, energia...), zerbitzuak eskualdeko hobeto banatuko dituen.** Aukera berdintsuak emango dizkiena eskualdeei (hezkuntza, osasuna, lana zerbitzu sozialak). Oreka logiko bat hiria eta herriaren artean. Un nuevo modelo de reordenación del territorio que ordene los sectores económicos y la población. Reforzar lo local (alimentación, energía...), igualar comarcalmente las oportunidades (educación, sanidad, empleo, ocio, servicios sociales), redistribución comarcal de servicios... Un equilibrio lógico entre la ciudad y el pueblo.

- Geure legeria propioa landu Ikerketa bultzatu./ Legislación propia. Fomentar la investigación.
- Lurren erabilera optimizatzea, lur bakoitzak dituen ezaugarriak kontuan hartuta. Nekazaritzarako lurrak defendatu behar dira. Monokultiboa edota desertizazioaren ordezkari birloralizatu, deszentralizatu eta dibertsifikatu./ Optimizar el uso de la tierra teniendo en cuenta las características de la misma.

Re-localizar, descentralizar, diversificar las actividades (agrícola-ganadero-forestales, industriales, turísticas, energéticas, logísticas...) frente al "monocultivo".

- Artifizial bihurtu dugun lurra pertsona denok berdintasunez erabiltzeko eskubidea./ Todas las personas tenemos el mismo derecho de utilización de tierras modificadas.

## **PARTE HARTZEA/ PARTICIPACIÓN**

Hirigintza inklusiborako eskubidea. Herritarren parte hartzearekin egingo dira, hiri eta herrien hirigintza antolakuntza eta espazio publikoen erabilera. Plan estrategikoen diseinuan herritarrek parte hartzea, eta horien gaineko erabakimena zuzeneko eragina jasango duten herritarrei ematea. Herritarrok proposatu, landu eta erabakitzeko eskubidea... Hirigintza planen hizkuntza ez da herritarrek ulertzeko modukoa eta herritarrek ez dute uste parte har dezaketarik. Proiektu estrategikoak ez dira eztabaidatzen komisiobatuetatik kanpo. Herritarrek eskubidea izango dute hiri eta herrien hirigintza-antolakuntza eta espazio publikoen erabilera planetan parte hartzeko modu loteslean. Dibertsitatea kontuan edukita antolatuko dira herriguneak. Erreferendum lotesleak. Instituzio, eragile sozial eta norbanakoen arteko komunikazio plataforma iraunkorrak. Modu efektibo eta errealean ingurumenarekin lotutako egitasmoei buruz, hauek garatu aurretik, informatuak izateko eskubidea. Hauei buruzko informazio guztirako eskubidea eta asanblada partehartzaileetan aukeratutako pertsonak aholka gaitzaten./ Derecho a un urbanismo inclusivo. Toda actuación urbanística y de utilización de espacio público se hará con participación popular. Participación en el diseño de planes estratégicos y las personas directamente afectadas tendrán derecho de decisión. La población propone, trabaja, y tiene el derecho a decidir. El idioma de los planes de urbanismo no es accesible a todo el mundo y la gente no cree que pueda tomar parte en ellos. Los proyectos estratégicos solo se debaten en comisiones aparte. La gente tendrá derecho a participar de manera vinculante en las decisiones acerca de urbanismo y de utilización de espacio público. Estructurar los núcleos urbanos a la medida de las personas que habitan en ellos, tomando en cuenta la diversidad. Referéndums vinculantes. Plataformas permanentes de comunicación entre las instituciones, organizaciones sociales y personas individuales. Derecho a ser informado con anterioridad a su propio desarrollo, de aquellos proyectos relacionados con el medio ambiente de manera efectiva y real. Derecho a toda la información relativa a ellos y a que nos asesoren personas elegidas por las comunidades afectadas en asambleas participativas.

- Ingurumenean duen eraginaren ebaluaketetan benetan eta era eraginkorrean parte hartzeko eskubidea. Instalazioak egin behar diren tokietan bertakoek erabakitzeko eskubidea./ Derecho a participar de manera efectiva y real en las evaluaciones de impacto ambiental. -Marco de decisión de las instalaciones en el ámbito donde se van a implantar.
- Zenbait erabaki (eztabaida eta polemika dakarten gaiak) jendarteak erreferendum lotesle bidez erabakitzeko eskubidea. Zaharkitutako legeak edota gizartearen gehiengoari erantzuten ez dutenak ezabatzeko herri kontsultak konbokatze eskubidea./ Derecho a que ciertas decisiones (temas controvertidos, polémicos) sean sometidos a refrendo popular vinculante. Derecho a convocar consultas para revocar leyes anacrónicas o que no se respondan a la voluntad popular.
- Azpiegiturei dagokienez, oreka egon dadila dirutan duen kostoa, ingurumenari dagokionez duen kostoa eta gizartearengan izango duen onuraren artean.



Azpiegitura publikoak ez lukete gaintitu behar aurrekontua./ Equilibrio en infraestructuras entre coste monetario, coste medioambiental y beneficio social. No deberían de existir los sobrecostos en los planteamientos de infraestructuras públicas.

### **DESZENTRALIZAZIOA/ DESCENTRALIZACIÓN:**

- Herri txikiak isolatuta ez uztea. Landa-eremua izatea ez da nahikoa: horri bizitza eman behar zaio, eta horretarako zerbitzuak eduki behar dira. Eskualde eta herri txikiak zerbitzurik gabe (adib, Eskola Txikiak) gelditzen ari dira eta horrek erabileran eragin handia du, kalterako. Zerbitzu guneak – zonalde naturalak urruntzen, euskararen kalterako. Kontzejuen desagertzearen kaltea, honek suposatzen duenarekin.../ No dejar aislados los pueblos pequeños, tener zona rural no es suficiente, hay que darle vida y para eso tiene que tener servicios. Las comarcas, los pueblos pequeños, se están quedando sin servicios (escuelas) y esto causa muchos perjuicios. Las zonas de servicio se están alejando de las zonas naturales y esto va en detrimento del euskera Desaparición de concejos, con lo que ello conlleva.
- Auzo bizi eta autonomoak izateko eskubidea. Auzoaren beharretara egokitutako ekipamendu soziokulturalak izateko eskubidea, erabiltzaileek beraiek kudeaturikoak. Auzoko kolektibo desberdinentzako aisirako zonaldeak izateko eskubidea. Auzoetan inguru berde edo parkeak izateko eskubidea (umeak, gazteak, helduak, adinekoak, maskotak)/ Derecho a un barrio con vida y autónomo. Derecho a contar con equipamientos socioculturales adaptados a las necesidades de los barrios y gestionados por las personas usuarias. Derecho a zonas de esparcimiento en los barrios para los distintos colectivos del barrio Derecho a zonas verdes en los barrios (infancia, jóvenes, adultos, personas mayores, mascotas).
- Desarrollismoaren parez pare deshazkundearen kontzeptua jarri. Etxeetan, komunitateetan autosufizienteak izateko eskubidea. Bizitza eredia aldatu norbanakotik hasita./ Anteposición del concepto de decrecimiento frente al desarrollismo. Derecho a ser autosuficientes en casas, comunidades. Cambiar el modo de vida empezando por uno o una misma.
- Mankomunitateen eskuduntzak ahal den hobekien aplikatu, eta gehiago lortu./ Aplicar bien las atribuciones de las mancomunidades y conseguir más.
- Jasangarritasunaren inguruko ikerketak badaude, baina martxan jartzeko bideak jarri behar dira./ Hay estudios sobre sostenibilidad pero hay que trabajarlos y ponerlos en marcha.
- Kaleetan lasai beldurrik gabe ibiltzeko eskubidea./ Derecho a transitar con seguridad por todas las calles.

### **GARRAIOA/ TRANSPORTE:**

Menpekotasun gabeko mugikortasun geografikorako eskubidea. Txartel bakarra, garraio publikorako erakunde bakarra. Garraio kolektibo publikoa guztiontzat. Herrien arteko garraio duina (ez herrietatik zentroetara bakarrik). Kalitatezko garraio publikoa herri txikietara ere zabaldu. Ordutegi eta ibilbideak egokitzea. Herri txikietan kotxeak erabili garraio publiko modura. Azpiegituren berrerabilpena./ Derecho a la movilidad geográfica sin dependencias. Billete único, único estamento de transporte público. Transporte público y colectivo para todos y todas... Transporte digno entre los pueblos (no solo en los centros). Transporte público de calidad a pueblos pequeños. Adaptar horarios y recorridos. En los pueblos pequeños se puede utilizar el taxi como transporte público. Reutilización de infraestructuras.

Garraio publiko eta doakoa guztientzat bai hiriburuetarako, bai herri guztietarako. Biztanleen beharretara egokitutako maiztasunarekin./ Transporte público y gratuito para todos y todas, tanto para las capitales, como para todas las localidades, con unas frecuencias adaptadas a las necesidades de la población.

- Aldirietako trenaren proposamena. Garraio publikoa gutxi erabiltzen da. Zergak igo kotxe erabiltzaileei eta garraio publikoa dohain./ Proposición de un Tren de cercanías. Poca utilización del transporte público. subir los impuestos al coche particular y transporte público gratuito.
- Langileentzako industrialdeetara garraioa autobusez enpresen kontura. Horrela norberaren kotxea gutxiago erabiliko litzateke, ingurumenarentzako hobea litzateke eta energia aurreztuko genuke./ Transporte a los polígonos industriales en autobús, a cargo de las empresas, para los trabajadores y trabajadoras. Serviría para usar menos el coche particular. Se daría una mejora medioambiental y un ahorro energético.
- Garraio pribatuaren erabileraren esku-hartzea./ Intervención en el uso del vehículo privado.

### **ENERGIA/ ENERGÍA:**

- Energiaren kudeaketa publikoa izatea./ Gestión pública de la energía.
- Energia berriztagarriekiko konpromisoa. Energia berriztagarriak eta descentralizatuak sortzeko eskubidea, traba legalik gabe. Gaur egungo energia motetatik energia berriztagarrietara aldaketa./ Compromiso por las energías renovables. derecho a producir energías renovables de manera descentralizada y sin trabas legales. Adaptación de las actividades productivas a nuevos patrones energéticos... Cambio del modelo energético actual hacia energías renovables.
- Txirotasun energetikoaren aurrean oinarrizko energia beharrak aseak izateko eskubidea./ Ante la pobreza energética, necesidades básicas de energía cubiertas.
- Autosufizientzia bilatu. Gutxiago kontsumitu, energia galerak ekidin (adb. Gertuago ekoitziz gutxiago galtzen da garraioan). Azken batean aurrezpen energetikorako politika eraginkorrak diseinatu. Bizitza eredua aldatu norbanakotik hasita./ Buscar la autosuficiencia. Consumir menos, evitar pérdidas energéticas (produciendo más cerca se pierde menos en transporte). Diseñar políticas eficientes para el ahorro energético. Cambiar el modelo de vida empezando por uno o una misma.
- Habitabilitatea izateko sare elektrikora konektatzea behartzen duen legea aldatu. Elektrizitate faktura ulergarria izatea edonorentzat./ Cambiar la ley que obliga a conectarse a la red eléctrica para que te puedan dar la habitabilidad. Factura de la luz comprensible para todo el mundo
- Konpainia handiekiko dependentzia hautsi behar da. Legeria propioa behar dugu Euskal Herrian. Eraikuntza enpresa handiek ekonomian duten eragina gutxitzea, erabakietan hainbeste eragin ez dezaten. Ingurumen kaltea enpresek euren gain hartzea./ Romper con la dependencia de las grandes compañías. Necesitamos legislación propia en Euskal Herria. Reducir la influencia en la economía de las grandes empresas constructoras, para que no influyan tanto en las decisiones.
- Azpiegitura handiak gelditu, AHT, autopistak, tentsio altuko lineak, frackinga/ Paralización de las grandes infraestructuras (TAV, autopistas, líneas de alta tensión,...).

## ELIKADURA BURUJABETZA/ SOBERANÍA ALIMENTARIA

Elikatzeko eskubidea, bizitzeko oinarriko eskubide gisa aitortzea eta bermatzea, ahal dela, tokian tokikoari eta zuzeneko harremanari lehentasuna emanez. Kalitatezko elikagaiak izateko/edukitzeko eskubidea./ El derecho a la alimentación debe ser tomado como un derecho básico y reconocerlo y asegurarlo y si fuera posible, dando prioridad a los productos locales y de confianza. Tenemos derecho a tener una alimentación de calidad.

- Elikadura-burujabetzarako plan estrategikoa (elikadura ekoizle eta premien mapa eta horiek uztartzeko plana). Bertako produktuen elikadura banku publikoaren sorrera./ Plan estratégico para la soberanía alimentaria (un mapa de productores y necesidades y un plan para combinarlos).
- Politika burujabeak menpekotasunarekin bukatzeko./ Políticas soberanas para acabar con la dependencia.
- Eskualdeko herritar, instituzio eta ekoizleen artean, lehen sektoreko mahai edo bilgunea eratu behar da. Izan ere, eragile guztiak bildu eta politika propioak adosteko garrantzia ikusi da./ Crear una mesa o lugar de reunión sobre el primer sector, entre gente de cada zona, instituciones y personas productoras para elaborar y acordar políticas propias.
- Ekoizpen eredua planifikatzeko eskubidea. Gure herriko nekazal eta arrantza politikak erabakitzeko eskubidea. Basozaintza eredua aldatzea, ustiatze intentsibotik biodibertsitatean oinarrituriko eredu batera./ Derecho a planificar el modelo de producción. Derecho a decidir las políticas agrarias y de pesca de nuestro pueblo. Cambiar el modelo forestal, pasar de un modo de explotación intensivo a uno que esté basado en la biodiversidad.
- Jendartearen parte hartzea alternatiba gisa, pertsonen entzun eta bertatik ezagutzeko bakoitzaren beharrak. Herritarren partehartzea bermatzeko tresnak. Kontsumo hezkuntza, publizitatea./ Participación social como alternativa, escuchando a la gente y conociendo las necesidades existentes. Herramientas para facilitar la participación popular. Educación en consumo, publicidad.

### **Produktzio baliabideak eskuratzea/ Acceso a recursos productivos;**

- **Lur eskubideak.** Lehen sektorean diardutenentzat lan baldintza duinak. Lurraren parke publiko baten sorrera, bertan ekoizturiko produktuak kontsumitzeko/ Derecho a la tierra. Creación de un parque público de la tierra, fomentado por las instituciones públicas, para el consumo de los productos cultivados en dicho parque. Agro-ecología como método de explotación.
- Lur komunalen eta enpresa forestalisten esku dauden lurren inbentarioa egitea, herriak lur horiek erosi eta erabiltzea bermatzeko, herrira buelta daitezen./ Hacer un inventario de las tierras comunales y de las tierras que están en manos forestalistas, que el pueblo compre esas tierras y devolverlas al pueblo para así garantizar su uso.
- Transformaziorako zerbitzu deszentralizatu txikiak beharrezkoak dira (hiltegiak, gaztandegiak...)/ Son necesarios los centros de transformación pequeños y descentralizados (mataderos, queserías...),

### **Bakoitzak egin dezakeguna/ Lo que está en nuestras manos**

- Ahalegindu behar dugun dena gure lurrean sortzen./ Intentar que todo lo que podamos necesitar se pueda producir en nuestra tierra.
- Pertsona orok eskubidea du bere lurraldean bere baliabideekin bizi ahal izateko, horretarako behar dituen laguntza guztiekin beti ere. Pertsonak erdi gunean ipinita beste interes batzuen aurretik./ Todas las personas tienen que

tener la posibilidad de mantenerse con sus medios dentro de su territorio, con las ayudas pertinentes. Siempre priorizando a las personas ante otros intereses.

- Ez daukagu nahi adina kontsumitzeko eskubiderik, kontsumitzen dugunaren %5 baino ez dugu bertan produzitzen./ No tenemos derecho a consumir todo lo que queremos, solo un 5% de lo que consumimos es producido aquí.
- Kontsumo zirkuitu zuzenak produkzioaren eta erabiltzaileen artean. Baserritar, arrantzale eta beraien eliaagaiak jango dituzten herritarren artean harreman zuzena izatea. Kontsumo ohiturak aldatu: Garaian garaikoa./ Circuitos de consumo directos entre productores y consumidores. Relación directa entre las personas que se dedican a la agricultura, ganadería y pesca y la gente que se alimenta de sus productos. Cambiar los hábitos de consumo, consumir alimentos de temporada.
- Autogestioa auzoen antolakuntzarako eta hauek bizirik egoteko./ Autogestion para la organización de los barrios y para mantenerse vivos.
- Kontzientziazioaren premia azpimarratu da. Orokorrean informazio falta, transgenikoak-osasuna./ Se remarca la necesidad de concienciación, en general falta información transgénicos, salud.
- Produkzio bideak, moduak, langileen lan baldintzak. Dunpping arazoak./ Sistemas de producción, modos, condiciones laborales de las y los trabajadores problemas de *dunpping*.

#### **Belaunaldi aldaketa/ Cambio generacional:**

- Nekazaritzako lurak berreskuratu, jabetzan izan beharrik gabe, baina nahiko bermerekin lana egonkortasun batez egin ahal izateko./ Recuperar tierras para la agricultura, no tienen que por qué ser en propiedad, pero sí con la suficiente garantía de estabilidad para poder trabajar.
- Kontratu motak, errelebo kontratuak bultzatu (enpresatakoen antzera)./ Impulsar el contrato relevo (como en las empresas).
- Dibertsifikazioa oinarri duen baserri orekatuak (intentsiboak irauliz), aktibitatea egokitzea lortuz eta inoren esklabo izan gabe (enpresa handiek prezioak ezarri)./ Tener unos caseríos equilibrados (revolucionando los intensivos), logrando equilibrar la producción y sin ser esclavo de nadie (las grandes empresas que marcan los precios).
- Baserrietan jarraituko dutenen falta. Hutsik daude asko eta kudeaketa modu berriak behar dira (auzolana, kooperatibak, lur bankuak...). Baserrietan emakume oso gutxi eta titularitaterik gabe, diskriminazio positiboa bultzatu behar da buelta ematen hasteko./ Los caseríos se han quedado sin gente que siga en el sector, muchos están vacíos, hace falta encontrar nuevos modelos de administración (auzolan, cooperativas, Banco de tierras..). Pocas mujeres y encima sin titularidad, hay que impulsar la discriminación positiva para acabar con esto.

#### **Instituzioak/ Instituciones**

- Eskumenak dituzte gai askotan, hauek jakin eta ideiak argi izanda eskaerak egin behar dira bide honetan pausoak emateko./ Tienen potestad en muchos temas, conociéndolos y teniendo las ideas claras, se pueden hacer solicitudes para que haya cambios en este sentido.
- Herri lurren kudeaketa duina baserritar izan nahi duten gazteei lurra eskura jartzeko./ Una buena administración de las tierras públicas, para poder poner en manos de las y los jóvenes que quieran vivir de ellas.

#### **Aldaketarako aukerak/ Opciones para el cambio:**

- Abeltzain eta nekazari elkarteak. Nekazaritza sustatzeko politikak./ Asociaciones de ganaderos, ganaderas, agricultores y agricultoras. Importancia de buscar cauces para explicar el tema de las ayudas a la agricultura. Políticas de ayuda a agricultores locales, para evitar la inestabilidad existente y la destrucción de cada vez más puestos de trabajo agrarios, para promover productos ecológicos, y para premiar la calidad.
- Bertako jakiak kontsumitu, eta salerosketa bertako txanponekin. Baserritar txikiari formazioa eta pizgarriak./ Consumo de productos locales, vendiendo y adquiriendo productos propios con una moneda local. Incentivos y formación al pequeño ámbito agrícola.
- Lurrak eskaini nekazaritza sustatzeko. Hiri ortuak. Lur publikoen erosketa nekazal erabilera emateko. Lur komunalekin herrietan bizia sortzen da. Laguntzak baserritik bizi nahi dutenentzat, mota guztietakoak./ Huertos urbanos. Adquisición de terreno público para la utilización agraria. Con los comunales se genera vida en los pueblos (que es algo que ahora quieren eliminar). Ayudas de todo tipo para aquellos y aquellas que quieran vivir del caserío.
- Elikagai-ekoizleak sortzeko baliabideak eta erraztasunak. Ikaskuntza elikagaiak ekoizteko. Uste da konpromisoa kontzientziatik datorrela eta hau jasotako informaziotik./ Aprendizaje de la producción de alimentos. Se considera que el compromiso proviene de la conciencia, y ésta de la información recibida.
- Gazteek lehen sektorea enplegu sortzaile eta bizi alternatiba bezala ikustea eta posible egitea./ Que las y los jóvenes vean el primer sector como generador de empleo y de alternativa de futuro y que puedan hacerlo posible.
- Kontzientziazioa lortu konpetentzia azalera handiak direla salatzen, kanpainak egin beharko lirateke eta baserritarren duintasuna/elkarlana bultzatu. Konfidantza, gertutasuna, ekologia, elikadura ekoizpenean heziketa kalitateari begira./ Hay que crear conciencia de que la competencia son las grandes superficies, y hacer campañas para dignificar a las y los productores e impulsar el trabajo en común. Confianza, cercanía, ecología en la producción alimentaria, siempre mirando a la calidad.
- Enpresa handietan erosiz gero dirua eskualdetik kanpora doa, bertakoa bultzatzearen beharra./ Comprando en las grandes superficies el dinero va fuera de la comarca, hay que impulsar lo local.
- Eskoletako, zahar etxeetako, haurtzaindegietako jangeletan bertakoa kontsumitzeko aukera ederra da, leku batzuetan martxan da jada./ Es una buena opción que, en las escuelas, casas de jubilados y jubiladas, escuelas infantiles, en sus comedores, se consuman productos locales. Hay sitios en los que ya está en marcha.
- Kontsumo taldea, kooperatibak, zuzeneko salmenta (azoken beherakada), herrietako baratza publikoak, internet bidezko salmenta./ Grupos de consumo, cooperativas, venta directa (la disminución de mercados), huertos urbanos, venta por internet.
- Janari-dendei behartu lehenik eta behin bertako produktuak saltzera, hauei eman lehentasuna./ Obligar a las tiendas de alimentación a dar prioridad a los alimentos locales.
- Elikagaien salerosketetan bitartekariak kendu, pobrezia eta prekariedade eragiten baitituzte./ Quitar intermediarios en la compraventa de alimentos, pues llevan a la pobreza y precariedad.

- Kanpotik datozen produktuak mugatu. Bertan sortutako/ekoiztutako produktuak sustatu. Bertan dauzkagun produktuak, kanpotik ekartzen badira, zerga altuak jarri, kanpotik produktu horiek ekartzea ezinezko bihurtuz. Salmenta gune handiak itxi, gertutasuna eta kalitatea bultzatzeko./ Limitar los productos que llegan del exterior. Impulsar productos creados o producidos aquí. Si productos que hay aquí se traen del exterior, poner impuestos altos, haciendo casi imposible el traerlos. Los alimentos que se importan en algún caso salen más baratos, pero son de menor calidad que lo producido aquí. Además, si son productos que llegan del exterior, debería haber un mayor control (composición de productos aditivos, colorantes, etc).
- Elikadura enpresak-saltokiak publikoak eta langileen kontrolpekoak izatea./ Empresas de alimentación-tiendas, públicas y controladas por las y los trabajadores.



## 2.LANARI LOTURIKO ESKUBIDE SOZIALAK / DERECHOS SOCIALES RELACIONADOS CON EL TRABAJO

### LANA / TRABAJO

*“Ekonomia” ez da merkatu kapitalistarentzat ondare eta zerbitzuen produkzio hutsa; izan ere, bizitzaren erreprodukzioarekin zerikusia duten baldintza sozial guztiak harremanean dago. Ikuspegi honetatik, “lana” bizitzaren erreprodukzioa ahalbidetzeko beharrezkoak diren ondare eta zerbitzuen ekoizpenarekin loturiko giza - jarduera da.*

*Lanaren sexu-banaketaren ondorioz emakumeei egokituriko “lan erreproduktiboak”, aldiz, pertsonen ongizate fisikoa zein emozionala birsortzen duten jarduera multzoa dira, etxeko lanen (garbiketa, arropa garbitu, otorduak prestatu...) edota zaintza lanen bidez burutzen direnak. / La “economía” no es sólo la producción de bienes y servicios para el mercado capitalista. Sino que tiene que ver con todas las condiciones sociales que permiten la reproducción de la vida. Desde este punto de vista, “trabajo” es toda actividad humana destinada a producir bienes y servicios necesarios para la reproducción de la vida.*

*Los “trabajos reproductivos”, asignados mediante la división sexual del trabajo a las mujeres, engloban a todo el conjunto de actividades que permiten regenerar día a día el bienestar físico y emocional de las personas, a través del trabajo doméstico (limpiar, hacer la cama, lavar la ropa, preparar la comida, etc.) y de cuidados.*

#### **Kalitatezko lana guztiarentzat/ Trabajo de calidad para todas y todos:**

- Prekarietatearekin amaitu/ Acabar con la precariedad.
- Emakume eta gizonen arteko eskubide zein aukera berdintasuna/ Igualdad de condiciones y de derechos entre hombres y mujeres.

#### **Lanaren banaketa, desberdintasunak gainditu eta bizitza bizigarria izan dadin/ Reparto del trabajo para superar las desigualdades y para el sostenimiento de la vida:**

- Pertsonen bizi mantenturako beharrezkoak diren lanak gizon eta emakumeen artean modu berean banatzea./ Reparto igualitario entre hombres y mujeres de las tareas necesarias para el mantenimiento de las personas (atención a personas con dependencia, tareas domésticas...).
- Lanen banaketa/ Reparto de los trabajos.
- Pertsonaren sozializazioa ahalbideratuko duen lan duina/ Trabajo digno que posibilite la socialización de la persona.
- Bizitza bizigarria izan dadin horren garrantzitsuak diren zaintza lanak ikusarazi, berrantolatu eta hauekiko sentsibilizatu ahal izateko, denboran iraungo duten sektore arteko konpromisoak erdietsi/ Asumir compromisos intersectoriales (sindicatos, asociaciones, colectivos, barrios...) sostenidos en el tiempo para la sensibilización, visibilización y la reorganización de los trabajos de cuidados tan importantes para la sostenibilidad de la vida.
- Etxeko lanen banaketa egin./ Compartir los trabajos del hogar.

#### **Lana, balio erantsia duen eta aberastasuna zein ongizate soziala sortzen duen jarduera ekonomiko zein sozial gisa aitortua izatea./ Reconocimiento del trabajo reproductivo como actividad económica y social que produce riqueza y tiene valor añadido.**

- Eremu pribatuan, soldatarik eta aitortzarik gabe, emakumeek egiten duten lanaren erregulazioa-arautzea./ Regulación del trabajo que realizan las mujeres

en el ámbito privado, sin reconocimiento ni sueldo

- Lan eskubideak sektore “ez produktiboetara” hedatzea./ Extensión de derechos laborales a sectores “no productivos”.
- Pertsona guztientzat aukera berdintasunean ezagutza, talentu eta gaitasunen aitortza./ Reconocimiento de saberes, talentos y capacidades en igualdad de oportunidades de todas las personas.
- Jarduera soziala burutzeagatik (militantzia...), eskubideen aitortza/ Reconocimiento de derechos por actividad social (militancia...).
- Lan erreproduktiboa BPG-ean kontabilizatzea/ Tasar el peso del trabajo productivo en el PIB.

## **ENPLEGUA / EMPLEO**

### **Kalitatezko enplegua guztiontzat./ Empleo digno para todas y todos:**

- Pertsona guztiei enplegurako eskubidea bermatu./ Garantizar el derecho al empleo a todas las personas.
- Bizitza hobea edukitzea bermatuko duen enplegu duina izateko eskubidea./ Derecho a un empleo digno para garantizar una vida mejor.
- Pertsona orok du kalitatezko enplegua, egonkortasun laborala eta ordainsari justua edukitzeko eskubidea./ Toda persona tiene derecho a un empleo de calidad, a la estabilidad laboral y a recibir una remuneración justa.
- Inklusio soziala eta garapen pertsonal zein kolektiboa bermatuko duen kalitatezko enplegua izateko eskubidea./ Empleo de calidad que garantice la inclusión social y el desarrollo personal y colectivo.
- Zergen bidez eskubide zein betebeharrak sozialak bermatuko dituen enplegurako eskubidea./ Trabajo digno que permita sufragar con los impuestos, las garantías y derechos sociales.
- Gazteak lan merkatura sartzeko neurri errealak./ Medidas reales para la incorporación de la juventud al mercado de trabajo.

### **Lanaldiaren berrantolaketa soziala: / Reorganización social de la jornada laboral:**

- Lanaldiaren berrantolaketa soziala definitu eta zehaztu ahal izateko, azterketa sozio-laboral baten beharra./ Necesidad de un análisis socio-laboral para la reorganización social la jornada laboral
- Enpleguaren genero azterketa egitea, ikuspegi feministatik abiatuta./ Realizar un análisis de género en torno al empleo desde una perspectiva feminista.
- Lanaldia murriztu eta behar sozialen arabera berrantolatzeko eskubidea, gehienez 35 ordu astean/ Reducción y reorganización de la jornada laboral conforme a las necesidades sociales, como máximo 35 horas semanales.
- (Estrukturalak ez diren) ordu extrak debekatzea./ Prohibir las horas extras (no estructurales)
- Jubilazio adinaren txikitzea./ Disminución de la edad de jubilación.
- ABLE eta azpikontratek enplegua prekarizatzen dute./ Las ETT y las subcontratas precarizan el empleo.
- Aurrerapen teknologikoek, jendarteak dituen behar zein hutsuneei zuzenduriko beste zerbitzu batzuk betetzea./ Usar el progreso tecnológico para responder a las necesidades y carencias de las sociedad

### **Bidezko soldata duina izateko eskubidea/ Derecho a un sueldo de calidad y justo**

- Enplegu duina, aberats eta pobreen arteko ezberdintasun soziala murrizteko, non gehien eta gutxien kobratzen dutenen arteko aldea progresiboki txikituko den./ Trabajo digno que recorte la brecha de desigualdad social entre ricos y pobres, que igual progresivamente salarios entre quienes más y menos cobran.



- Lan jarduerak sortzen duen aberastasunaren banaketa justurako, baimendutako gehienezko diru-sarrera ezartzea./ Instauración de un ingreso máximo autorizado para el reparto justo de la riqueza generada en la actividad laboral.
- Etxeko lanetan, bereziki etxeko langile gisa, dabilzan pertsonak pairatzen dituzten lan baldintza ezberdintasuna ezabatu./ Eliminar las desigualdades en las condiciones laborales de las trabajadoras del hogar, en especial de las interinas.
- Bidezko ordainsaria izateko eskubidea, kategorien arteko soldata-ezberdintasunik gabe./ Derecho a una retribución equitativa, sin diferencias salariales en las mismas categorías.
- Pobreziaren mugatik gora (BPGren %35a) kokatuko den LGS (batzbesteko soldataren %60a) bermatu./ Garantizar un SMI (60% del salario medio) que esté por encima del umbral de la pobreza (el 35% del PIB).

**Langileon lan eskubideen bermea: / Garantizar los derechos laborales de los y las trabajadoras:**

- Grebarako eskubidea./ Derecho a la huelga.
- Lortutako eskubideen atzeraezintasuna aitortzea./ Reconocimiento de la retroactividad en los derechos adquiridos.
- Negoziazio kolektiborako eskubidea./ Derecho a la negociación colectiva.
- Ekintza sindikalerako eskubidea./ Derecho a la acción sindical.
- Euskal Herrian lan egiten duen orok, bertako hitzarmen kolektiboaren baitan lan egiteko eskubidea du/ Toda persona que trabaje en Euskal Herria tiene derecho a hacerlo en base al convenio colectivo de aquí.
- Esparru laboralari buruzko formazio errealerako eskubidea./ Derecho a la formación real de ámbito laboral.
- Lan osasun zein prebentzio publikorako eskubidea./ Derecho a la salud y prevención pública.
- Mutualitateak eta harremanduriko erakundeak sistema publikoan barneratzea./ Integración en el sistema público de mutuas y organismos relacionados.
- Administrazioek, eraikuntza lehiaketatan, kontratazioetan, lizitazioetan etabarretan jaso behar dute esleipena lortu duen enpresaren betebeharrak dela kontratatutako dituen langileak herrialde mailako edota erreferentziak herrialdeko hitzarmenekin kontratatzea./ Las administraciones deben recoger en los concursos de obra, contrataciones, licitaciones... la obligación de las empresas adjudicatarias que contraten a las trabajadoras y trabajadores con los convenios provinciales o autonómicos de referencia.
- Baldintzen pleguetan, parekidetasuna eta euskarazko gaitasuna jaso behar dira kontratazioei dagokionean./ En los pliegos de condiciones, se deben incluir la paridad y la capacitación lingüística en euskara en la contratación.
- Prebentzio eta osasun laboralerako eskubidea./ Derecho a la prevención y salud laboral.
- Langile klasearen (eta oinarri sozialaren) antolatze eskubidea: sindikatuak, kolektiboak, mugimendu soziala.../ Derecho de la clase trabajadora (y de la base social) a organizarse: en sindicatos, colectivos, movimiento social...
- Enpresan kargu sindikaletan jardun ahal izateko kontziliazioa hobetu./ Mejorar la conciliación para que se puedan ejercer cargos sindicales en la empresa.
